

ttiipi-ttapa

282. zenbakia • 2000ko uztailak 13 • XX. urtea

Aitatxi-amatxien Eguna uztailaren 26an Bertizen

Arkupeak elkarteak Donezteben egin berri duen bestari segida emanez, uztailaren 26an Aitatxi-Amatxien Eguna ospatuko dute Bertizen. Goizean goiz Aizkolegira mikrobusetan joan dira, hala nahi dutenek. Handik Bertizera jautsiko dira batzuk oinez eta bertzeak autobusez. Bertiz bisitatu ondotik, Meza eta bazkaria Almandozen izanen dute. Bertzalde, Arkupeak elkarteko 31 kidek beteko dituzte aurten 85 urte, eta hamabortz senar-emaztek eginen dituzte 50 urte ezkondurik. Guzi hoiek zoriontzeko besta antolatu zuten eskualdeko 800 erretiratut Donetzteben.

Ekitaldiak urte osoan zehar

Arkupeak elkarteak 3.500 bazkidek goiti ditu gaur egun. Iaz 25 bidai antolatu zituzten, egun bakarre-

Horrela emanen zaio segida aurten 85 urte eta Urrezko Ezteiak beteko dituztenen omenez Donetzteben berriki egindako bestari

koak batzuk eta luzexegoak bertze batzuk. Denetara 13.500 lagun baino gehiago

animatu zen txango hoietan parte hartzera, batez ere egun bakarrekotan. Momentu honetan bertan Arkupeak elkarteko zenbait bazkide Santiagoko Bidea egiten ari dira ttiipi-ttapa. Ikusten duzuen bezala erretiratuek ez dute deskantsurik hartzen.

 3-5



Gehigarri berezia Elizondoko bestak

Santio bestak hil honen 24tik 29ra eginen dira Elizondon. TTIPI-TTAPAREN ale honekin batera egun hoietan izanen den egitaraua aurkituko duzue, baztandar eta bisitari guzietan besta noiz, nola eta non egin erabaki ahal izateko.

Ohi dugun bezala, Elizondoko argazki xahar batzuk sartu ditugu egitarauaren ondoan, denbora batean bestak nola ospatzen zituzten gogoratuz.

6 Gaurkotasuneko gaia: Gero eta elkarte gehiago Baztan aldean

Azken boladan hainbat elkarte berri sortzen ari da Baztan aldean. Herri ttiketian elkartu eta harremanak sendotzeko dagoen beharra nabaria da iritzia emen dituguten baztandarren arabera. Anizko Aitor Azkarate, Elizondoko Mikel Sobrino eta Arraiozko Jose Luis Karrikabururen kolaborazioak bildu ditugu atal honetan.

25 Kirolak Bortzirietako futbito txapelketa

Lesakako Gran Hermano taldeak irabazi du Beti Gazte elkarteak antolatzen duen areto futbito txapelketa, finalean Arantzako Max Motosierra taldeari irabazita.



ARGAZKIAK



ELIZONDO
DONEZTEBE

Tfnoa.: 948 58 01 55
Tfnoa.: 948 45 08 25

▶ %10 errebelatzeetan

ESKULANAK



BERA

Bidasoa, 4

Tfnoa.: 948 63 01 54

▶ %10 merkeago
(eskulan
materialetan)

ESTETIKA



LURRINDENDA
ESTETIKA

LESAKA

Behoko Plaza, 8
Tfnoa.: 948 637 791

▶ %10 merkeago
5.000 ptatik goiti

OPTIKAK



ELIZONDO
Santiago, 62

Tfnoa.: 948 58 13 91

▶ %10 merkeago lente
graduatuetan



TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago
irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA



948 63 11 88

Aitzineko alean zozketatu genituen
2 afari edo bazkarien irabazlea:

**Garbiñe LEIZA
(AURTITZ)**

HAMABORTZALDI HONETAKO SARIA:

**2 afari edo bazkari
TTIPI TXARTELA dutenendako
Zalain jatetxean**



Zalain auzoa - BERA

☎ **948 631 106**

2 lagunendako bazkari edo afaria

zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean.

Zozketan parte hartzeko, deitu uztaillaren 21a baino lehen 948 63 11 88ra.

LIBURUDENDAK



LEITZA

Elbarren, 15

Tfnoa.: 948 51 01 46

▶ %10 merkeago opari
artikuluetan



LESAKA

Albistur, 9

Tfnoa.: 948 63 70 30

▶ % merkeago liburu eta
eskola materialetan,
1.000 ptatik goitiko
erosketetan.
Estankoa ez.

Nafarpress

ELIZONDO

Jaime Urrutia, 43

Tfnoa.: 948 58 09 02

▶ %10 merkeago
liburu eta eskola
materialetan,
testuliburu eta
bideotan ezik.

PENTSUAK



MENDAU PENTSUAK

DONEZTEBE

Aparan ind.

Tfnoa.: 948 45 18 45

▶ %5 merkeago
zakur, katuen...
pentsuak.

ARKUPEAK ERRETIRATUEN ELKARTEA

Omenaldi beroa 85 urte eta Urrezko Ezteiak bete dituztenei

Ekainaren 27an ospatu zen Arkupeak elkartearen urteroko Anaitasun Besta Donezteben. Aurten 85 urte bete dituztenak, Urrezko Ezteiak (50 urte esposaturik) bete dutenak eta Arkupeak elkartearen hamalagarren urteurrena ere ospatu dute. Erretiratuek Nafarroako Kutxaren laguntza izan dute egun honen antolaketan. Giro eta animazio bikaina izan zuten Donezteben.



Doneztebeko elizan meza aditu ondotik, omenaldia jaso zuten aurten 85 urte egin duten emakume eta gizasemeek eta 50 urte esposaturik bete dituzten senar-emazteek. Gero bazkaria izan zuten Bordatxon.

ARGAZKIAK:

FOTO ZALDUA ETA FOTO MENA

Aurtengoan Arkupeak elkarte-ko hogeita hamaka kidekegin dituzte 85 urte eta hamabortz senar-emaztek ospatu dituzte Urrezko Ezteiak (hurrengo bi orrialdeetan, omenduen argazki eta izen-abizenak ageri dira).

Azken urteetan baino omen-
du gutixeago baldin baziren
ere, besta giro ederra izan zu-
ten egun osoan Doneztebera
hurbildu ziren 800 erretiratuek.
Herri ezberdinetatik etorritako
autobusak ailegatu ondotik
Meza Nagusia eman zuten San
Pedro elizan Jesus Goldaraz
apezak, Jose Javier Aizkorbe-

organoa jotzen zuen bitartean.
Felipe Ganboa Arkupeak el-
karteko lehendakariak eta
Eusebio Maritorea Leitzako
ordezkariak omenduak aurkez-
tu zituzten eta Txomin Gar-
mendiak bertsoak eskaini ziz-
kien. Elizatik Bordatxoko bi-
dea hartu zuten, urtero bezala
Argetasko Moderno jatetxeak
eskainitako bazkari ederra das-
tatzeko. Bazkarira agertu zi-
ren agintarien artean Miguel
San Miguel Doneztebeko al-
katea eta Calixto Ayesa,
Nafarroako Gobernuako Gizarte
Ongizate Departamenduko
kontseilaria izan ziren. Bazkal
ondotik dantzan aritzeko au-
kera ederki probexu zuten ju-
bilatuek.

IAZ 13.000 LAGUNEK HARTU ZUTEN PARTE ELKARTEAREN BIDAETAN

Joan den urtean egindako ekitaldien berri emateko eta elkartearen aldizkaria aurkez-
teko ere aprobetxatu zuten egu-
na Felipe Ganboak. Gaur egun
3.500 bazkideetik goiti ditu
Arkupeak elkarteak eta joan
den urtean antolatu zituen 25
bidaietan 13.520 lagunek har-
tu zuten parte. Egundak har-
reko hamalau txangoetan 6.395
erretiratuek eman zuten izena.
Egun bat baino gehiagoko bi-
daietara (Benidorm, Frantziako
Tourra, Santiago Bidea,
Portugal, Kantabria, Puente
Viesgo, Hondarribia, Lourdes,
Ebro eta Andorrako ibilbide-

ak...) 7.125 pertsona joan zi-
ren. Modu berean, Santiago
Bidea egiten ari diren bazki-
deak ere gogoratu zituen
Ganboak.

AITATXI-AMATXIEN EGUNA UZTAILAREN 26AN BERTIZEN

Etorkizunera begira, le-
hendabiziko ekitaldi handia
uztailaren 26an Bertizen egi-
nen den Aitaxi-Amatxi-
Eguna izanen dute Arkupeak
elkarteko kideek. Goizean goiz
nahi dutenek Aizkolegira mi-
krobusetan joanen dira. Handik
Bertizera jautsiko dira, batzuk
oinez eta bertzeak autobusez.
Bertiz bisitatu ondotik, Meza
eta bazkaria Almandozen izan-
nen dute.

Urrezko Ezteiak



Jose Bergara-M^{ra} Josefa Larretxea (Arantza)



Esteban Lasaga-Trinidad Mitxelena (Bera)



Pedro Eltzaurdia-Margarita Pikabea (Bera)



Martin Bañares-Juana Josefa Ziganda (Doneztebe)



Daniel Petrikorena-Luzia Sagaseta (Elizondo)



Fermin Urrutia-Maria Azkarate (Elizondo)



Juan Maia-Juana Ariztegi (Etxalar)



Francisco Galarregi-Jesusa Elizagoien (Gartzain)



Jose Oskotz-Paquita Ustaritz (Irurita)



Severiano Prim-Marcela Ustaritz (Irurita)



Jose Joaquin Otermin-Isabel Sagastibeltza (Leitza)



Atanasio Ramos-Carolina Santos (Lesaka)



Gabino Anso-Maria Zelaeta (Oitz)



Benito Suhas-Josefa Sarratea (Urdazubi)



Lorenzo Igoa-Isabel Irigoien (Ziga)

85 urtekoak



Rosario Barandain (Areso)



Claudia Alkasena (Arizkun)



Manuel Altzugarai (Arizkun)



Regulo Barazabal (Azpilkueta)



Aurelio Bertiz (Beintza-Labaien)



Mª Luisa Gaintza (Bera)



Florentina Goienetxe (Bera)



Teresa Linazaso (Bera)



Martin Petirena (Bera)



Maria Otxandorena (Donamaria)



Josefa Ziganda (Doneztebe)



J.Martin Barberena (Elizondo)



Manuel Goñi (Elizondo)



Martin Almandoz (Erratzu)



Anuntxi Agesta (Etxalar)



Micaela Telletxea (Ezkurra)



Eusebia Loiarte (Goizueta)



Justo Lujanbio (Goizueta)



Benito Olló (Goizueta)



Carmen Altzuri (Igantzi)



Bautista Arretxea (Igantzi)



Oliva Etxeberria (Igantzi)



Fermin Otxandorena (Lekaroz)



Mª Luisa Bordagarai (Leitza)



Sofia Cantabrana (Leitza)



Bautista Iparragirre (Leitza)



Mª Carmen Lasarte (Leitza)



Francisca Ganboa (Sunbilla)



Ramona Ibarra (Sunbilla)



Rufina Iriarte (Sunbilla)



Francisca Zenoz (Ziga)

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txopereña,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Zugarramurdiko Akelarre elkar-

tea, Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako

Zerbitzu Mankomunitatea, Zuga-

rramurdiko Akelarre Elkartea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria160 Libera

Europa4.000 Pta.

Amerika16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Hainbat elkarte berri sortzen ari da Baztango herrietan

Elkarte berriarekin Anizek lehenagoko bizitasuna berreskuratuko du



Aitor AZKARATE
Aniz

Anizen, bertze herri ttikietan bezalaxe, ostatua bazeogen lehen, baina horrelako dirubide batek ez zenez bizitzeko adina etekinik ematen, etsi behar izan zuten. Toki hura bera, herriko zenbait etxeren artean alokatu eta elkarte modura erabili genuen. Baina nagusiaren beharrak zirela eta utzi behar izan genuen. Hiru urtez bederen, herria mottel-mottel izan dugu. Azkenean elkarte berri bat eraikitzea ausartu gara eta baita lortu ere.

Gan den ekainaren 4an elkarteak bere lana hasi zuen. Anizek bertze itxura bat hartu du, noiznahi bai gazteak bai adinekoak bertan baitaude bazkaldu edo afaltzen. Mantso-mantso herriak lehenagoko bizitasun hori berreskuratuko du. Honela helburu nagusienetako bat betetzen ari da, hala ere kultur arloan ere murgildu nahi genuke, ekitaldiren bat edo bertze eginez. Elkarte honek berexitasun bat du, kideak pertsonak izan ordez etxeak baitira, eta horrek arazoren bat eman digu estatutuak idazteko orduan. Akitzeko, nire ustez, herri ttikiek elkarte bat behar harko lukete, herria aitzinerat ateratzeko eta herri guztia gototasunean bildu ahal izateko.

Gure asmoa kuadrilako txoko bezala erabiltzea da: afariak egin, elkartu...



Mikel SOBRINO
Elizondo

Aspalditik ari gara kuadrilarentzat elkarte bat bilatzen, baina ez dugu lortzen, eta batzuk etsitu dute aunitz. Bajerak hagitiz garesti daude, eta daudenak ttikiegi-egiak dira... mendian edo inguruetan begira aritu gara, baina borda eta baserriek ere dirutza balio dute: 7 milioi, 8 milioi... Errentan hartzea ere pentsatu dugu, baina zertarako den jakiten dutenean, atzera egiten dute nagusiek. Hemen ez dago Erriberan bezala kuadrilarentzat lokalak egiteko ohiturarik. Elkarteak badira, baina denak dira aspaldi eginak. "Jo ala jo" taldekoei etxe zahar bat eman diete berriki Arizkun eta poliki-poliki konpondu nahi dute.

Gure asmoa txoko bezala erabiltzea da, afariak egin, elkartu... 30 lagun gaude kuadrilan, eta denak sartzeko ezin dugu edozein bajera hartu. Elizondon kuadrila bakoitza elkartzen da ostatu batean eta azkenean denbora gehiegi da tabernan sartua. Guk ez dugu nahi elkartean kieto ateri gabe egon. Ez, erreferentzia puntu bat izatea nahi dugu, afaltzeko, elkartzeko...

Beste kuadrila batzuk ere ari dira elkartzeko toki bat bilatzen.

Gehienbat adineko jendea apuntatu da, baina badira 5 edo 6 gazte ere



Jose Luis KARRIKABURU
Arraioz

Arraiozen orain ari gara Bil-Toki elkartea sortzeko lehenbiziko pausua ematen. Lokal hau elizari itsekia dago. Lehen batzarretea zuen izena, eta oraindik lehenago oroitzen naiz eskola utzia zuten gazteak neguan horrat gaten zirela klaseak hartzea. Elizak kreditu bat eskatu eta moldatu eginen du lokala, eta guk errentan hartuko dugu gero. Orain dela guti Iruñera bidali ditugu estatutuak, elkarte gisa funtzionatzen hasteko.

Aspalditik gaizki zegoen toki hori eta oraiko erretorak konponetzea erabaki zuen. Bi aukera zuden: landa etxe gisa montatu edo bertzenaz herriarentzat elkarte bat egin. Herri guziari idekia dago, kartel bat paratu genuen elizako atean, eta 30 bat lagun apuntatu ginen: gehienbat adineko jendea, baina 5-6 gazte ere badira. Emakume batzuk ere apuntatu dira.

Batez ere afariak egiteko erabiliko dugu elkarte. Herrian aspalditik ari ginen elkarte egiteko intenzioarekin. Harpatu genituen bi toki baina ttiki xamarrak ziren eta ez genuen herria partitu nahi.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Atzera gabiltza Beran

Gure herri huntan **atzera pausu bat eman dugula** salatu nahi dugu:

- 1994 urtean «Kaxerna Aisialdi Taldeak» Udalekuak martxan jarri zituen haurrentzat uztaila hilabeterako. Arrakasta handia izan zuen haur eta gaztetxoentzako.

- Duela 2 urte «Kaxerna»k erabaki zuen gaztetxoei zerbitzu hau ez eskeintzea, gehiago haundi batek ingelesezko udalekuetan izena ematen zuelako eta ez zelako behar zen kopururik lortzen ahal.

- Joan den urtean txikiendako eskaintza bereizi zen: alde batetik «Kaxerna»k bere zerbitzuak eskeintzen zituen, bertez aldetik gauza bere egiten zuen «Labiaga»k.

- Bukatzeko, dirudienez aurtengoan, VI. futbito txapelketa antolatuko arazoak izan direla eta, bertan behar utzi dugu dena. Pena da Berako gazteen artean hainbeste arrakasta izaten zuen txapelketa ez ospatzea baina ondoren aipatuko ditugun arrazoiengatik ez antolatzea erabaki dugu Baietz Peñakoek.

Egunkari batean, kasualitatez, irakurri genuen C.C. Beratarrek "La Miguel Indurain"ekin batera erakusketa bat antolatu behar zuela. Hagitz ongi iduritzen zaigu horrelako gauzak Berako herriarentzat mesedegarriak baitira oso. Baina ez egin den moduan ezta egin behar den lekuan ere, kiroldegia erabiltzeko intentziora baitute. Kasualitatez noiz eta azken bost urteetan txapelketa antolatu dugun egunetan... Instalazio bakoitza eraiki denarako erabili behar dela uste dugu eta beste gauzaren batetarako egokitu behar bada, zergatik ez beste leku bat? Baina horretan ez gara sartuko, Udaletxearen ardurak baita hori.

eta ez jakin zer egin. Gure kabuz zerbaite antolatu? bakoitza bere kabuz ibiltzea ez zaigu soluzio egokia iruditzen. Denentzako zerbaite nahi badugu soluzioa «Kaxerna» da; baina «Kaxerna»k lan egin ahal izateko haur kopuru bat behar du eta horretarako batasuneko adostasun batera ailegatu beharko genuke.

Aurten ia ezin bada ere, datorren urterako udalekuak «Kaxerna»k antolatzea nahi genuke. Lortuko ote dugu denon artean? Anima zaitzete.

GURASO TALDE BAT (8 SINADURA)

**Berako peñen arteko futbito txapelketa**

Aurtengoan, VI. futbito txapelketa antolatuko arazoak izan direla eta, bertan behar utzi dugu dena. Pena da Berako gazteen artean hainbeste arrakasta izaten zuen txapelketa ez ospatzea baina ondoren aipatuko ditugun arrazoiengatik ez antolatzea erabaki dugu Baietz Peñakoek.

Egunkari batean, kasualitatez, irakurri genuen C.C. Beratarrek "La Miguel Indurain"ekin batera erakusketa bat antolatu behar zuela. Hagitz ongi iduritzen zaigu horrelako gauzak Berako herriarentzat mesedegarriak baitira oso. Baina ez egin den moduan ezta egin behar den lekuan ere, kiroldegia erabiltzeko intentziora baitute. Kasualitatez noiz eta azken bost urteetan txapelketa antolatu dugun egunetan...

Instalazio bakoitza eraiki denarako erabili behar dela uste dugu eta beste gauzaren batetarako egokitu behar bada, zergatik ez beste leku bat? Baina horretan ez gara sartuko, Udaletxearen ardurak baita hori.

Dirudienez, garrantzitsuagoa da kiroldegi barruan erakusketa bat egitea, bertan Berako 200 gaztek parte hartzen duen Berako Bestetako kirol ospakizun bat aurrera eramatea baino.

Hala ere, uste dugu txapelketa eta erakusketa batera egiten ahal zirela. Baina bai Udaletxearen aldetik izandako informazio eskasiagatik baita C.C. Beratarrek izan duen moldatzeko interes faltagatik, aurten ez da futbito txapelketarik izanen.

Espero dugu datorren urtean gauzak behar bezala egingo direla.

BAIETZ PEÑA

**Hizkuntza politika Nafarroan**

Leitzako Euskara Batzordeak, azkenaldi honetan euskararen inguruan Nafarroan esan eta egiten ari direnak ikusita, bere iritzia adierazi nahi du, labor bada ere.

1.- Euskara, nafar hizkuntza. Euskara Nafarroako hizkuntza eta nafarren hizkuntza da. Jakina da Nafarroan hizkuntza gehiago ere mintzatu direla, baina euskara da historian sartu ginenetik gurekin bizi den hizkuntza, eta bere kontrako ahalegin ugari nozitu dituen arren, oraindik ere bizi dena.

2.- Euskara nafar guztien eta Nafarroa osoko ondarea da, nafar guztien hizkuntza eta

Nafarroa osorako hizkuntza. Ez da soilik hizkuntz komunitate tradizionalaren edo herri "erabat euskaldunen" herritarren ondarea eta eskubidea. Alegia, euskararekiko hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko ez da beharrezkoa Leitza, Ituren edo Arantzako herritarra izatea edo aitona-amonak eta gurasoak euskaldunak izatea. Berdin-berdin aitortu beharko litzaizkioke hizkuntz eskubideak Lizarra edo Izabako euskaldunari. Beraz, gaur egungo inguru eta populazio euskaldunari eustez gainera, euskarari hedapenerako eta berreskurapenerako eskubidea ere aitortu behar zaio, gaur egungo egoera desorekatua eta ez-bidezkoa errealitate aldaezin eta gairidiezintzat jo gabe. Euskararen normalizazioa ez da ofizialtasunaren ondorio ezinbesteko eta automatikoa, baina Nafarroan, eta Euskal Herrian, euskarak lurralde osorako ofizialtasuna behar du.

3.- Nafar gizarteak euskararen aldeko jarrera askotan adierazi du. Batzuetan galdetu egin zaionean edo eskaintza zehatzak egin zaizkionean, eta bestetan bere ekimenez edo euskalgintzak bultzatuta (Bai Euskarari, Oinarriak erakundearen sinadura bilketa,...). Nafarroako Gobernuak, berriz, gizartearen eskaera hori bere egin eta bultzatu beharrean, alderantzizko norabidea hartu du eta euskara are gehiago baztertu duen ildoan lantzen hasi da. Hausnarketa labor honetan oinarrituta, bada, Nafarroan euskarak benetako hizkuntz politika behar duela adierazi nahi dugu, euskara Nafarroako hizkuntza propioztat joko duena, eta hizkuntz eskubide kolektibo eta norbana koarenak kontuan hartuko dituen.

Nafarroako Gobernuari bere eginkizuna bete dezan exigitzen diogun bezala, nafar

gizarteari eta euskalgintzari bereziki euskararen aldeko ahalegin sendoa egiten jarrai dezan eskatu nahi diogu, euskarak merezi eta behar baitu.

LEITZAKO EUSKARA BATZORDEA

**Seaska**

Kaixo lagunok:

Udako oporrak hurbiltzen ari dira eta guztion ahotan daude aurtengo oporretarako bakoitzak dituen egitasmo eta proiektuak. Gu, lana eta aisialdia uztartzen dituen egitasmo bat aurkeztera gatzozkizue, Lapurdiko itsas ertzetik ikusita eta ipar Euskal Herriko herrikideak bidelagun ditugularik.

Kontua da Ziburuko ikastolan lan txiki batzuk egiteko asmoa dutela (hormak jaso, pintatu, altzairuak lekuz aldatu,...) eta hau aitzakiatzat hartuta, bertakoei laguntzeaz gain, ipar Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea dugula. Auzolandegi hauen planteamendua, aste egunetan goizez bertako ikastolako guraso eta lagunekin lan egitea da, eta arratsaldeak, mendialdeko itsasora irteerak, txangoak eta ekintza desberdinak egiteko aprobeztatzea da.

Bestalde, astebukaeratan bi egunetako irteerak egiteko aukera ere izango dugu, honela, barnealdeko txoko ezkutuetan bisitatu zein ezagutzeko beta izango dugularik. Auzolandegi hauek 15 egunetakoak izanen dira eta bi txandatan antolatu ditugu. Lehenengoa uztailaren 16tik 30era eta bigarrena, uztailaren 30etik abuztuaren 13ra. Plaza mugatuak daudenez, deitu lehenbailehen izena emateko 943 712 117 telefonora (Ander).

Bertzerik gabe, ontsa izan eta laster arte!

HEGOHAXE



Diario de Navarra 00ko uztailak 3

«Alkatesa banintz bestetako barrakak urte osoan paratuko nituzke. Gainera, urtean bi aldiz egingen nituzke bestak, uda haseran eta uda akabailan».

Kristina MINDEGIA
Doneztebeko alkatesa ttikia
Diario de Navarra 00-07-03

«Proiektu honetan landu behar ditugun arlo guzietan aukera ugari eskaintzen dituzte. Musika arloan ere ariko gara lanean, museo batek interesgarriak iruditzen zaizkigun tresnak biltzea eskatu baitugu. Taldearen

abantaila nagusia ia jakintza arlo guzietan hartzen ditugula da».

Miguel Mari ELOSEGI
Leiztarra
«Pangea» espedizioko kidea
Diario de Navarra
00-07-03

«Lehen 4-5 frontoi zeuden eta jendea haietara joaten zen. Orain pilota herri bakoitzera eramaten da. Hori ongi eginga dago, pilota akitzen ari baitzen, eta umeek aurrera segitzeko hori inportantea da».

Julian RETEGI
Eratsungo pilotaria
Argia 00-07-02

- ◆ **Ikasle, trikitilari, ostalari... Nola moldatzen zara guzietan egiteko?**
- ◆ Astez ikasi eta trikitixa jotzen dut. Ostatuan berriz, udan egunero aritzen naiz, baina urte osoan asteburuetan bakarrik.
- ◆ **Lanbide guzietan zein da atsegina?**
- ◆ Ostaturakoa, jendearekin harremanatzea gustatzen zaidalako.
- ◆ **Goi Mailako Heziketako Administrazioa ikasten ari zara... Zein duzu ikasgairik gogokoena?**
- ◆ Giza Baliabideak.
- ◆ **Irratian arituko zara lbintzak antolatutako irratsaioetan... Zein gisako saioa egingen duzu?**
- ◆ Ittungo eta munduko berriak emanen ditut.
- ◆ **Iñauteak edo Aurtizko bestak?**
- ◆ Iñauteak, dudarik gabe, herrikoia goak direlako.
- ◆ **Aurten lbintzak antolatu beharko lukeen zerbait?**
- ◆ Kontzertu bat, Fermin Muguruza eta Manárekin.
- ◆ **Trikitixaren munduan ere bazabiltza... Zure ustez zein da horretan aritzen direnen artean onena?**
- ◆ Kepa Junkera, baina egiten duen musika ez zait sobera gustatzen.
- ◆ **Ikasi duzun azken pieza?**
- ◆ Trikitixa eta fandango bat.
- ◆ **Kantatzen edo trikitixa jotzen aritzen zara erosoago?**
- ◆ Bietan moldatzen naiz.
- ◆ **Estresa nabaritu duzu noizbait?**
- ◆ Azterketa garaian bai.
- ◆ **Besta eta ostaturak, konbinatu gogorra...**
- ◆ Igandetan bai, baina ordutegi ona dut... Ebakia hormarekin hartu eta tira!



Aitziber MINDEGIA
Ikasle, ostalari eta trikitilaria
AURTIZ

© 948631076 • BERA

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Txomin IRAZOKI
Fisioterapeuta
Eztegara, 24 • © 948 631391 • BERA
Parrokia, 5 • © 948 451854 • DONEZTEBE
Tel. mugikorra: 670 471200

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
© 948 630 763

SELEZONES UDENA S.L.
*Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest*

© 948630052 • Zalain • BERA

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalafakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

Aceraliako komenio berria sinatu dute Legasa, Lesaka eta Zalaingo lantegietan

ESKk ez du sinatu Enpresa Batzordeak eta zuzendaritzak adostutako hitzarmena

TTIPI-TTAPA

Lesaka, Zalain eta Legasako lantegietako langile komiteak ekainaren 28an sinatu zuen Aceralia enpresarekin hurrengo hiru urtetarako lan hitzarmena.

Hiru eguneko negoziazioen ondotik LAB, ELA eta CCOO sindikatuak aurreakordio batera iritsi ziren, nahiz eta ESK ados ez agertu. Halere aipatu beharra dago aurreakordioa sinatu baino lehen LABek langileen iritzia jakin nahi izan duela, horretarako batzarra edo kontsultaren bat eginez. Enpresa Batzordean egindako bozketan, ordea, ELA eta CCOO zuzenean sinatzearen alde agertu ziren, 23 ordezkarietatik 12ren botoak eskuratuz.

Komiteak eta Aceralia enpresak sinatutako hitzarmenak zenbait berritasun ekarriko ditu. Hauen arabera, soldata egokipena, hitzarmenak irauten duen hiru urteetan, bizitza kostearen indizea gehi puntu batekoa izanen da.



Hurrengo hiru urteetarako Aceraliako langileen lan baldintzak eta soldatak zehazten dituen hitzarmena sinatu dute. Artxibokoa

Urte haseran indizean oinarrituko da soldata, urte bukaeran indize erreala puntu bat goituz.

Jardunari dagokionez aurten bete behar diren 1.672 lan orduetatik abiatuta lan erregimen guzietan lanorduak urte bakoitzeko 8 orduz guttitzeko konpromezu hartu dute bi aldeek. Oporrei dagokionez, lan txanda guzientzako 23 opor egun

ezarri dira.

Bertzalde soldatarik gabeko baimen edo eszedentziei dagokionez urte bat baino guttiagoko eszedentzietan lanpostua mantenduko da, eta bertzelako kasurik gertatuz gero eszedentzia eskatzeko posibilitateak zabalduko dira.

Talde aseguruaren atalean aitzineko akordioa gaintitu egin da, beraz ezgaitasun osoari dagokion indemniza-

zioa 40 urte baino guttiago dituztenentzat 5 lanurteko soldataren parekoa izanen da, eta 55 urtetik goitikoentzat 3 urtekoa, lehen bezala.

Jarraikortasunaren inguruko sariak ere zerbait aldatuko dira: lantegian 25 urte eman dutenendako saria orain arte bezala mantenduko da, baina 35 urte aritzeagatik ematen dena 30era jautsiko da.

Hauek dira hitzar-

men honek eskeintzen dituen berritasun nagusiak. Tartean zenbait atal zintzilik gelditzen dira, nahiz eta aipamenik baduten. Bertzeak bertze ordu extremen inguruko afera, euskararen erabilpena, aldi baterako kontratuak, azpikontratak edo emakumearen integrazioaren kasuak. Hauetako batzuk Madrileko konbenio orokorra dute oinarri.

Baina, aipatu bezala hitzarmena ez da denen gustokoa izan. Batzuentzat lorpen handia denak, bertze batzuentzat, ez ditu guttieneko eskakizunak betetzen.

Confederación de Cuadros enpresarekin hitzarmen propioa sinatzen du, beraz, ez du honetan parte hartu. ESKk ezezkoa eman dio hitzarmenari. Pello Astiz ESKko kideak adierazi digunez, «Aceraliaren irabaziak kontuan hartuz soldata igoera eta lan ordu murrizketa ez dira nahikoak. Gainera, azken erabakia langile guzien artean hartu behar dela uste dugu».

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735



SAROBE

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

BEXUEN



25 metro goratzen den garabia
Kabrestantea urrutiko agintearekin

Tel: 670 974025 • 667 418661

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

ZALAIN

JATETXEA

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira



Arg.: Asier

Turkia, Lituania eta Berako dantzarien erakustaldia uztailaren 20an

Iaz, argazkian ageri diren Azerbaidjaneko dantzariak etorri ziren bezala, aurten ere bertze herrialdeetako dantzariak etorriko dira Berara Gure Txokoak Behobiako dantza taldearen laguntzarekin antolatu duen jaialdian parte hartzera. Turkia eta Lituaniatik etorriko diren 14 eta 18 urteko gazteek beren herrietako dantza folklorikoak erakutsiko dizkigute Eztegara pilotalekuan arratseko 8,30etatik aitzinera. Horren aitzinetik, ordea, herrian barna kalejira gisako bat egiteko asmoa dute giroa berotzen joateko. Beran aritu ondotik Etxalar eta Donezteben ere aritzekoak direla erran digute antolatzaileek. Bertze herri hauetan, gainera, nabal eta ezpatekin dantza ikusgarriak egiten dituen Georgiako taldea gehituko zaie Turkia eta Lituaniakoei.

flash

Jose Luis Telletxea

Astearte honetan epaiketa berri bat egin diote Portugalen, handik kanporatu edo ez erabakitzeke. Portugaleko gobernuak Espainiakoaren presioak izan direla onartu du, beratarra hirugarren herrialde batera bidaltzeko.

"La Indurain"

Uztailaren 23an eginen da bizikleta martxa honen 9. edizioa. Aurten, berrikuntza gisa, hilaren 21etik 23ra Bizikletaren FERIA antolatu dute herriko kiroldegian. Txirindularitza modernoaren azken materialak egonen dira ikusgai.

Kanpo zorra

Pobrezia handia duten herrialdeei kanpo zorra barkatzeko eskatu dio Udalak Espainiako Estatuari. Ahobatez onartu duten mozioaren bidez, kanpo zorra herri hoiengarapenerako erabiltzea proposatu dute.

Herriko bestetan kukaña jarriko da hamazazpi urteren ondotik

Besta Batzordeak aspaldiko ohitura hau berreskuratu nahi du

ASIER GOGORTZA

Abuztuaren 2tik 6a arte izanen dira aurtengo San Esteban bestak. Urteroko ekitaldi eta ospakizunnez gain, egitarauan ikuskizun berexi bat ageri da berrikuntza gisa. Beratar gazteenek ezagutu ez badute ere, garai batean kukañarena zen aunitzentzat bes-

tetako momenturik politenetakoa. Horregatik, 1983ko uholdeez geroztik galdua zen ohitura hau berreskuratu nahi izan du Besta Batzordeak, nahiz eta aldaketa ttiki batzuk izanen diren. Errate batera, maki-laren puntara ailegatzen diren gazteak ez dituzte diruz sarituko, txapel bat emanen zaie horren

ordez. Betiko tokian izanen da kukaña, Astondoako zubian, eta egunotan jarriko dute presa, bestetarako urez bete eta egon dadin.

San Esteban egunetan ezik, egunero izanen da kukaña, eguerdiko 1etan edo arratsaldeko 6etan. Igandean presa ireki eta erreka jautsiera egiteko asmoa dago.



Arg.: Goiko

belardenda
Mediku naturista kontsulta
 Legia I, behea • BERA
 © 948 630652

ie Iriarte-Echandi, s.l.
 • Aholkularitza
 • Artekartitza
 • Aseguruak
 Kanttonberri I • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

ITZUNE - GAZTEAK
 Altzate, 19 • 948630786 • BERA

LESKA

XXI. mendeko lehen Sanferminak hurbilago daude!

Aurten asteburu jendetsua izandu da, batez ere Peñen Egunean

AITOR AROTZENA

Aurtengoz ere akautu dira Sanferminak. Ortzeguneko txupinazoaren ondotik, asteburu jendetsua izan zen, batez ere larunbateko Peñen egunean. San Fermin egunean Alfonso Gartzandia Goñi apez berria ezagutu zuten aunitzek. Joan den urtean hasitako bideari eutsiz, azken egunean Txakainen berendua egiteko aspaldiko ohi-tura berreskuratu da aurten ere. Horretarako, Eskol-titikik kalejiran joan ziren, musika bandaren laguntzaz. Beti bezala, aitzineko asteburua kultur eta kirol ekitaldiz betea egon zen.

NAZIOARTEKO MAHAITENIS SARIKETA

Unai Rojo gasteiztarra nagusitu zen Beti Gazte elkarteak lehen aldiz antolatutako nazioarteko mahai-tenis txapelketan. Guzira 40 jokalaritari aritu ziren. Mikel Garcia izan zen lehen lesakarra.

TRIKITIXA ETA HERRI KIROL JAIALDIA

Igandean egin zen Lesakan Baztan, Mallerreka eta Bidasoa aldeko III. trikitilari txapelketaren finala. 12 urte artekoetan, Lesakako



Arkupe elkarteak antolatutako pala motza eta paleta goma txapelketako finalak jokatu ziren

Uztailaren lehen jokatu ziren Arkupe pilotazaleen elkarteak antolatutako gizasemeen pala motza eta emakumeen paleta goma txapelketen finalak. Emakumeen txapelketan hamar bikotek hartu dute parte eta finalean Aiako Eli eta Iruritako Edurnek 35 eta 33 irabazi zioten Goizueta Mirari eta Altzako Txuseri. Gizasemeetan, Altzako Mena eta Amianok 40 eta 37 irabazi zioten Oiartzungo Ormaetxea I eta Tolosako Aierberri. Sei bikotek berterik ez dute parte hartu aurten.

Ioar Oteiza eta Donamariako Garbiñe Migeltorena suertatu ziren txapeladun. 12 urtez goitikoetan, berriz, Etxalarako Joseba Olagarai eta Lesakako Estitxu Elgorriaga. Arratsalde berrean, herri kirol jaialdi ikusgarria egin zen plazan. Sokatiran, Sakanako neskekin batera Beti Gazte eta Urriñako mutilak aritu ziren. Lasto altxatzen Igantzioko mutilak izan ziren

eta Perurena aita-emekek ere ikuskizun ederra eskaini zuten.

XIV. MARINO LEJARRETA TXIRRINDULARI SARIA

Asteazkenean berriz, txirrindulari kadeteen zuzendutako XIV. Marino Lejarreta Saria burutu zen. Gulf-Agrunata taldeko Jon Etxarri izan zen garaile eta Urtxin-txako Liborio Ariztia doneztebarra bigarren. 77 lagun atera ziren.


Presoen eskubideen aldeko manifestazioa

Presoen eskubideen aldeko ibilaldia guardiazibilak debekatu ondotik uztailaren lehen aldarrikapen berarekin manifestazioa egin zen herriko karraketan barrena. Oraingoan ez zen arazorik izan, guardia-zibilak ez baitziren agertu eta manifestazioa lasai ederrean burutu zen.

Personaiak

Orreagatik Santiagora 28 egunez

Ekainaren 3an Orreagatik oinez abiatu eta uztailaren 1ean ailegatu zen Santiagora M^a Jose Telletxea, Pakito Portu senarra eta Fernando Susperregi lagunarekin batera. Guk dakigula, Santiago Bidea oinez eta laguntza ibilgailurik gabe egiten duen lehen emakume lesakarra da M^a Jose. Bere ustez, «denetik politena bidean egiten dituzun lagunak dira. Gogorra, berriz, 7-8 kiloko motxila egunero bizkar gainean ibiltzea». Haserako bi egunetan euria egin bazien ere, gero eguraldi ona izan dute. Malda gogorrak izan dituzte bidean. Gaztela alde zela xamarra denez, lau egunez 140 kilometro egiteko aprobetxatu zuten. M^a Joseren erranean, «Santiago Bidea edozeinek egiten ahal du, baina ez edozein gisara joanda. Aitzinetik gorputza eta burua prestatu behar dira». Santiagora ailegatzeko hagitza polita izan zen: «Bidean elkar ezagutu genuen guziak negarrez hasi ginen».



M^a Jose TELLETXEA

LORE ETA LANDAREAK
© 948 63 78 26
Frain auzoa • LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala
© 948 637439 • 670 215604 • 31700 LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

kizkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

ETXALAR

Laguntza ofizialeko etxebizitzak egiten hasiko dira

Izena emateko epea berehala idekiko da

PELLO APEZETXEA

Luzatu gabe hasteko asmoa dute laguntza ofizialeko etxeak egiten. Abudo samar hasi behar harko du izena ematen, etxebizitza horietakoren bat interesatzen zaionak. Zortzi bizitza izanen dira, denetara, bi etxetan banatuak, Basate ondoan. Etxebizitza bakotzak, 90 metrokoa, 12 milioi inguru balioko du.

Lizarietako Aduana-etxe izana trukatu nahi da

Udalak erabakia hartu du. Aduana-etxea eta inguruko lurra dirutan saldu beharrean, bertze

lur baten truke eman nahi du. Hain zuzen ere, aparkalekurako balio lukeen lur baten truke. Denetara, 860 metroko luze-zabalera du Lizarietako eremuak, eta bertan 660 metroko etxea egiten ahal du erosleak, bi solairutan banatua.

Aparkalekurako lurra erosi du Udalak

Bekolanda auzoan sartu eta berehala dagoen lur eremua erosi du Udalak, 9.660.000 pezetan. Bertan 35 kotxe aparkatzeko tokia izanen da. Orain aparkalekurako lurra moldatzeko, 4 milioi eta er-



Herrian aparkatzea arazo larria da oraindik. Bekolanda Udalak erositako lurretan 35 autorentako lekua izanen da. Artxibokoa

di pezeta behar dira, eta Gobernuari eskatu dio, Hirurteko Planean sartuta. Bertze tokian aipatzen den lur trukatzeko eginez gero, aparkalekuaren soluzioak aintzin-pauso haundia emanen luke, behar bada.

Usategietako aparkalekua haunditzekotan

Usategietan ere aparkalekuarekin dabilta bueltaka. Zenbait egunez kotxeak ez direla

kabitzen eta, haunditu nahi dute. Gobernuak Ingurumen Departamenduak onartuko bala, oraingo aparkalekuaren aintzineko bide bazterrean mendiari kendu eta autoak uzteko tokia prestatuko litzateke.

Posta Zerbitzuko buruak agertu dira

Korreoseko buruek ez aditua egiten zutela errana genuen, eta horrela izan da hainbat hilabetez. Orain, ordea,

agertu dira, eta, iduri duenez, solasteko prest etorri dira. Zer egiteko prest dauden bertze kontua da. Gauzak lehen-gora ez dira aisa itzuliko, momentuz adierazi dutenaren arabera.

Euskal presoan martxa eta kanpainaren alde

Euskal presoak Euskal Herriratzeko martxa eta kanpainaren aldeko mozioa onartu zuen Udalak, ekainaren 8an.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater kombinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

J. RAMOS
Zolak akutzilatatu eta barnizatzen dittut
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

IRU BIDE
ERRISTEGINA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

XATUHETXEA
Zafra
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

Ioredenda
Albistur, 39-K
627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

IGANTZI

Zaila izanen da aurten eskolako leku arazoak moldatzea

43 lagunek eman dute izena igeriketa ikastaroetan

OSKAR TXOPERENA

Aspaldi samarretik ari gara aipatzen eskolako hurrengo ikasturteari begira izanen dituen leku arazoak. Gauzak momentu honetan nola dauden jakiteko Ana Jose Irigoein eskolako zuzendariarengana jo dugu.

Nondik nora sortu dira aipatzen ditugun arazoak?

Arazoak bigarren atzerritar hizkuntza-ingelesa- eman beharrak larritu baldin badu ere, orain arte zeuden baldintzak ere nahiko eskasak zirela erran behar da. Behar bezala funtzionatu ahal izateko gu-

ttienez bertze bizpahiru gela beharko lituzke Igantziako eskolak.

Moldatuko al dira arazoak irailean hasiko den ikasturteari begira?

Ahaleginak egin baditugu ere, gaur egun dugun azprietura berarekin moldatu beharko dugu irailean ere. Nafarroako Gobernuak ukatu egin zizkion Udalari bai



Igeriketa ikastaroak

43 haur ari dira dagoeneko lanean Izaskun Dorronsorok ematen dituen igeriketa ikastaroetan. 43 hauetatik 12 dira arantzarrak eta behar bezala aritzeko lau taldetan banatu ditu irakasleak.

Argazkia: Oskar Txoperena

konsulta lekuz aldatzeko dirulaguntza eta baita eskolan egin nahi genituen obrena ere, eta momentuz partxeak paratuz segitu beharko dugun. Geroztik bi bilera egin ditugu, bata joan den hilabetean Iruñean Hezkuntza eta Osasun Departamentuko ordezkariekin eta bertzea

joan den astean Igantzin bertan zonaldeko ikuskaria eta arduradunarekin.

Zeintzu ondorio ateratu dituzue bilera hauetatik?

Jarrera guziz irekia ikusi diegu. Nere ustez, igantziako eskolak dituen beharretaz jabetu dira eta aintzineria begira, ikasleen kopuruak izanen duen gorakada ikusita gainera, gauzak poliki-poliki konpontzen joanen direla ematen du.

Albaiterorik gabe

Joan den hilabetean egin zuen bere azkeneko bisita Igantziara paperak betetzeaz arduratzen zen albaiterorik. Hemendik aintzineria azindren paperak bete ahal izateko Lesakako Udalera joan beharko da asteartean 11,30etatik 13,30ak bitartean, edo bertzela, Doneztebeko Juanseneara aste osoz 8etatik 11ak arte.



DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorea Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA



Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziako Bentak • © 948 627572 • Faxes: 948 637508

bortzirUDI **BERA**

FOTOKOPIAK • DISEÑO GRAFICO
 ENCADENAZIOAK • IMPRENTA LANAK
 PLASTIFIKAZIOAK • SERIGRAFIA
 FAXA • E-SKALA
 ARGAZKI MUNTAIK • FOTOFITZAIK
 SKANNERRA • FOTOKOPIAK

Estogara 26 behea Tel.- Faxes: 948 63 15 21



Bideo Profesional erreportaiak • Ezkontz erreportaiak

Tel: 948.599.055

Jose Canabal
elektrizista

© 948 637541
© 666 575899
IGANTZI



LESKA

ARANTZA



Herriko futbito taldea Lesakan azpitxapeldun

Iaz ez bezala, aurten ezin izan dute garaipena lortu Bortzirietako futbito txapelketan Max Motosierra futbito taldeko kideek. Halere, ez dute emaitza txarra lortu, bigarrenak izan baitira. Argazkian, irabazleekin batera ageri dira. Jokalari onenaren saria Dabid Iturriak jaso zuen.

Baserrietako bideak moldatzeko lanak lau milioi terditan egingen dira

Pilotalekua margotu eta kanposantua handitu ere egingen dira

ELIXABET ETA GARBINE

Ekainaren 24an egingako udal batzarrean hiru puntu izan zituzten aztergai: baserrietako bideak moldatzeko proiektua, pilotalekua margotzeko lanen ematea eta kanposantu handitzeko proiektua.

Baserrietako bideak moldatzeko eskaintza

ezberdinak jaso ziren. Kontuan hartuz lanak enkantarean bidez ematen direla eta preziorik baxuena eskaintzen duen lehiakideari ematen zaiola, udalbatzak ahobatez erabaki zuen Basarte S.L. enpresari baserrietako bideak izeneko proiektua eta obraren zuzendaritza ematea, 4.598.484 pe-

zetaren truke, BEZ barne.

Bertzalde, pilotalekua margotzeko lanak Proind, S.L. enpresari ematea erabaki da. Kanposantuari dagokionez, Francisco Chocarro eta Maria Urmeneta arkituek egindako kanposantua handitzeko proiektua onartu da. Proiektuaren aurrekon-

tu osoa 18.593.943 pezetakoa da. Horietatik 11.628.669 pezeta obra zibilarena eta 6.905.228 pezeta panteoi eta ni-txoena.

Barnetegia uztaila eta abuztuan

Azkeneko urtetan bezala, aurten ere uztaila eta abuztuan barnetegia izanen dugu. Dagoene-

ko lehenbiziko taldea hurbildu da. 37 lagun dira, 32 ikasle eta 5 irakasle. Hauek hamabortz egunez egonen dira Arantzan eta bertze hainbortze etorriko dira hurrengo txandan. Ongietorriak!

Lehendabiziko jaunartzea egin dute hiru haurrek

Ekainaren 25ean lehenbiziko jaunartzea ospatu zen. Hiru haurrek egin zuten: Itziar Mitxelena, Ander Almandoz eta Unai Iparragirre. Jaunartzearekin batera, Besta Berri eguna ospatu zen.

PATXIKU garraio - eskabazioak
Tel: 670 974025

ALBERGIA JATETXEA
© 948 634179
ARANTZA

EDARRIAK

MANUELLI FABRICA S.L.
Herdaneta 1/82 • 31100 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax 948 63 10 27

GAZTANDEGIA

LIZUN
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

BELARRA

OSTATUA - JATETXEA
Ameztiak karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

ANTZAZELAS S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angelak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandakoa' Macizoa
Zuhar antzekoa Txapeletua

ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK

☞ DONEZTEBE



Herriko Beti-Alai txaranga gaztearen doinuak aditu ahal izan dira aurtengo bestetan ere.

Argazkia: Jon Altzuguren

Umore eta giro ederra aurtengo bestetan ere

Lehen aldiz Udal ttikia osatu da

TTIPI-TTAPA

Juan Telletxea zinegotziak bota zuen altxaferoaren ondotik besta giroa hedatu zen karriz karriz. Aurtengo berrikuntza nagusia, uztailearen 2an Udal Ttikia osatu zela izan zen. Miguel San Miguel alkate *haundiak* agintea eman zion Kristina Mindegia San Martin alkate ttikiari. Berekin batera, Rocio Artazkoz Goñi izan zen alkateordea eta zine-

gotziak, berriz, Virginia Fernandez Telletxea, Maider Mindegia Eleta, Alaiñe Goñi Saez, Iñigo Munarriz Bañares, Iñaki Telletxea Iribarren, Gariquito Urrotz Gelbentzu eta Kristina Zabala Ustaritz izan ziren zinegotziak. Ibai Mariezkurrena Sagasetak bete zuen bake epaile lana, nahiz eta, egia errateko, lan sobera ez izan. Igandeko bazkariarekin utzi zituzten beraien karguak. San Pedro eguneko

azikora apostuan uste-gabekoa eman zuten Senosiain eta Jaunarenak, Donato Larretxea eta Mikel Mindegia irabazi egin baitzieten. Ortziraleko bazkal ondoko karaokeran ere izan zen ezustekorik, doneztebar gazte batzuen *ahots zoragarriak* bat baino gehiago harritu utzi baitzuen. Musika, pilota, parapentea eta bertze ekitaldi aunitz utzi dizkigute aurtengo San Pedro bestek.

☞ BERTIZARANA

Hirigintza Plan berria onartu da

221 etxebizitza eraikitzeko aukera ematen du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu Ingugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza departamentuak Bertizaranako udalaren Hirigintza plana onetsi du berriki.

Honen arabera, orain 221 etxebizitza berri eraikitzeko modua dago Bertizaranan. Jakina den bezala Bertizarana hiru kontzejuk osatzen dute, Legasa, Narbarte eta Oieretik, eta nahiz horrelako kasuetarako bakoitzak bere arau subsidiarioak mantentzen dituen, honako hau izan da hiru herrietakoak bateratu eta plan bakarra osatzeko egin den lehenbiziko saiakera. Hain zuzen Legasa eta Narbarten 1991an idatzi zituzten eta Oieretik hiru urte lehenago, 1988an. Gauregun Bertizaranan 661 biztanle bizi da, 312 Narbarten, 245 Legasan eta 104 Oieretik, eta plan berriari proposatutakoaren arabera 61 etxebizitza

egiteko modua izanen da NARBATEN, 97 LEGASAN eta 63 OIERETIK.

Hainbertze etxebizitza egiteko arrazoiak zein ote diren galderari erantzuna bilatzea ez da hain zaila. Bertizarana Baztan eta Malerreka artean kokatua dago, jende aunitz pasatzen den tokia, gehienbat N-121-A errepidea erditik pasatzen delako. Baina etorkizunari begira errepidearen moldaketak, Bertizek erakartzen duen turista kopuruak eta Beharbada Aceralia enpresaren zabalketak etxebizitzaren eskaera haundituko dutela uste du Udalak. Plangintza honek natura parke eta gune berde publikoetako ia 31.000 metro koadro hartu ditu, Bertizekoak kontatu gabe. Hauetako 14000 NARBARTEN, 6200 LEGASAN eta 10.600 OIERETIK.

Plana egina dago, orain etxebizitza hauek egiten diren edo ez ikusi beharko da, beti ere eskaeraren arabera.

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donoztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

MALERREKA



Iturengo bestak uztailaren 14tik 18ra

Larunbatean pilota partidak jokatu dira

Ortzirala, uztailak 14
Arratsaldeko 9etan txupinazoa. Gero kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12,30etatik 4etara** dantzaldia GAUBELA taldearekin.
Larunbata, uztailak 15
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12etan** pilota partidak: Leiza-Lasa, Apezetxea-Esnaolaren kontra. Itungo haur eta gaz-

tetxoek ere jokatu dute. **6etan** Trikitixa emanaldia: Josune eta Ainhoa Irastorza beraien ikasleekin. Sunbillako trikitixa eskolakoak ere arituko dira. **Arratsaldez eta gauzez** GAUBELA taldea.
Igandea, uztailak 16
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12etan** Meza Nagusia. **6etan** herri kirolak. Aizkolariak: Dani

Vicente eta Jose Antonio Loiarte. Harrijasotzailea: Migeltxo Saralegi. **Arratsaldez eta gauzez** GAUBELA taldea.
Astelehena, uztailak 17
Haurren Eguna
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **11etan** helduentzako plater tiraketa. **11etatik 2etara eta 5etatik 7etara** haurrendako jokuak: Hinchables Standar,

Plazan aska jartzen zen bestetan. Azken eguneko bazkariaren ondoko saltsan ateria da argazkia, orain dela 15-20 urte inguru. **Goiko argazkian 1968ko bestetako esku-programa. Orduan herriko bestak San Martinetan izaten ziren eta auzoei eskainitako egunak izaten zituzten. Udako bestarik ez zen.**

gargantua eta tren ibilaldia. **Arratsaldea** txokolate jatean izanen dute herriko plazan. **5etan** mus txapelketa. **Arratsaldez eta gauzez** IRAST taldea.
Asteartea, uztailak 18

10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **2,30etan** herri bazkaria.. Ondoren, kalejira. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia IRATS taldearekin eta bestak akitzeko 'Pobre de mi'.

ONGI PASA HERRIKO BESTAK

ETXANDI TXOKO
jatetxea *Besta onak pasa!*
Bazkari, afari eta gosariak
 ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

AETXUNEA
IRRETEGIA

ITUREN
Besta onak pasatu!
 Tfnoa: 948 450 410

HERRIKO
OSTATUA

Ituren
Zorionak eta
besta onak pasa
 © 948 450325 • ITUREN

ITURENGO UDALAK

Iturengo Udalak
Besta zoriontsuak
opa dizkizue
Iturendar
eta bisitari guztioi

ELGORRIAGA

Elgorriagako Santiago bestak uztailaren 22tik 26ra ospatuko dira

Mendi bizikleta lasterketarekin hasi eta Modesto akordeolariaren doinuekin akituko dira

Larunbata, uztailak 22

10etan Mendi-bizikleta lasterketa (1. saria: 20.000 pezeta; 2. 15.000 pezta eta 3. 10.000 pta). **1etan** beste hasera emateko suziri. Herriko trikitilariak eta txaranga karrikaz karrika. **5etan** haurrendako jokuak. **9etan** Malerrekako zopak. **Gauerditik gozalderra** dantzaldia BASAJAUN taldearekin.

Igandea, uztailak 23

10etan goiz-argi soinuak, herriko trikitilariekin. **12etan** Herri Krossa. **5etan** herriko XXXVI. mus txapelketa eta berendua. **8,30etan** musika GAUBELA taldearekin. **Gauerditik gozalderra** dantzaldia ABAXI taldearekin.

Astelehena, uztailak 24

10etan goiz-argi soinuak. **12etan** herri kirolak eta bertso bazkaria. **4,30etan** ibilaldia zaldiz. **5,30etan** Partxis txapelketa. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Asteartea, uztailak 25

Santiago Eguna

10etan goiz-argi soinuak. **11etan** Meza Nagusia. **12etan** pilota partidua eta Vermuta. **6etan** futbito partidua. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia ABAXI taldearekin.

Asteazkena, uztailak 26

10etan goiz-argi soinuak. **11etan** herriko Toka txapelketa. **2etan** Zikiro-jatea. **Arratsalde eta gauz** MODESTO akordeolaria akituko da.



Goiko argazkian, duela bizpahiru urteko zikiro-jatea ageri da. Beheitan, Elgorriagako gazteek eta lan kanpamenduetara etortzen direnen arteko futbito partida jokatzeko da urtero.



Herriko Ostatua

Besta onak pasa!

☎ 948 45 450 605
ELGORRIAGA

AITZIBER ALMANDOZ

Janaridenda

Burdinlan artistikoa
MARTIN IZARBA
Tfnoa: 948 450235 • ELGORRIAGA

garagardo
besta
irurita uztaila 22 julio
ordua: 2500

AJARIGUAN
TUTUMBA
THE BON SCOTT BAND
ROSENLO
HAMLET
2-KATE
ZETA Y GUATEQUE ALL STARS

2500

ETXEBERRIA
ZURGINDEGIA

Ongi pasa bestetan!

☎ 948 45 03 10 • ELGORRIAGA

ELGORRIAGA
Faxa: 948 450 235
☎ 948450132 / 689706002

GOIZUETA

Orreagatik Santiagora hamabost egunetan

Laxaro Salaberriak 50 kilometro egiten zituen egunero

ESTEBAN AROTZENA

Laxaro Salaberriak, Labeko 43 urteko ibiltariak, bazekien ongi aski bere indarren berri, maiatzaren 22an Orreagatik Santiagoruntz abiatu zenean hamabost eguneko epea eman baitzion bere buruari Galizako hiri horretara ailegatzeko. Horrelaxe izan zen. Egunero-egunero 50 kilometro eginez, ekainaren 5erako osatu zituen aipatutako bi lekuen arteko 750 kilometroak, inolako estutasunik gabe, gainera, Laxarok berak esan zigunez.

Ondorengo hilabetetan, bidai hau berriz egitekotan da Labeko mu-

tila. Dena den, hurrengoia hogeitatu egunetan egiten omen du. Oraingoan gain-gainetik ikusi dituen hainbat herri eta parajetaz gehiago gozatzeko aukera emanen dio horrek.

Jokin Solano libre

Bi hilabete espetxeratuak eduki duten Jokin Solano gazteari ongietorria eman asmoz herritarrez gainezka egin zuen Umore Ona elkarteak uztailaren 2an bertan ospatu zen bazkarian. Egun horretan bukatu zen, gainera, presoak Euskal Herriratzearen aldeko etengabeko kanpainaren beste ziklo bat, plazan bu-

rutu diren 24 orduko baraualdi-kanpaldiena, hain zuzen. Hamabosteroko kontzentrazioak bere horretan dirauten bitartean, irailean eztabaidatu eta erabakiko omen dira hurrengo hilabetetan egin beharreko ekintzak.



Goiko argazkian, Laxaro Salaberria, Orreagatik Santiagorako bidea hamabost egunez egin ondotik, Santiagoko katedraleko atarian. Ezkerrean, Jokin Solano, espetxetik atera ondotik Umore Ona elkartearen zitaia omenaldian.



ARANO

Santiago festak, uztailaren 22tik 26ra egingo dira

Larunbata, uztailak 22 12etan suziria festei hasera emateko. 10etan oirlasko-jatea San Roke elkartearen (Txartelak herriko tabernetan: uztailaren 20a arte 1.000 pta, hortik aurrera 1.500). Afal ondoren MUXUTRUK taldea.

Igandea, uztailak 23 10etan goiz-soinuak Hernaniko trikitilariekin. 11etan Meza. 12etan haurren arteko pilota partiduak. 6etan Gorritiren Show-a. 7etan txokolatada. 9etan antzerkia herriko plazan.

Astelehena, uztailak 24 8etan Meza. 10,30etan mus lehiaketa San Roke elkartearen.

Asteartea, uztailak 25 Santiago Eguna 10etan goiz-soinuak trikitilariekin. 11etan Meza Nagusia. 12,30etan pilota partiduak Arano eta Goizuetako afizionatuen artean. 6etan Saralegi anai-arreben herri kirol ikuskizuna. Mikel Saralegik 200, 250 eta 280 kiloko errektangularrak eta 100 kiloko boro-bila altxatuko ditu. Loiatre



eta Etxeberria aizkolarien arteko lehia. Bi hauen eta Kristina Saralegiren arteko desafioa eta Esteban Saralegik 5 metroko altueran moztuko du.

Asteazkena, uztailak 26 San Joaquin eta Santa Ana 10etan goiz-soinuak trikitilariekin. 11etan jubilatuei eskainitako Meza. Gero ha maiketako Gure Ametsa

tabernan. 12,30etan afizionatuen arteko pilota partidak. 2etan bazkaria Herriko Etxe tabernan, trikitilari eta Lazkano eta Agirre bertsolariekin.

LEITZA

Gorabehera ugari presoan aldeko martxan

Guardiazibilak eragozpen asko jarri zion ibilaldiari

JOSEBA AZPIROZ

Ekainaren 22an, presoan eskubideen aldeko martxa nazionala Leitzara iritsi zen. Arratsaldeko 6etan hasitekoa zen herriko ekitaldira, Nafarroako beste herrietan bezala, guardiazibilak azaldu ziren. Orduan hasi ziren horien mandoaren eta alkatearen arteko eztabaidak. Alkateak, manifestazioa ez baina kultur ekitaldia eginen zela esan zion, baita horrelakoak arautzen dituen foru legea erakutsi ere. Horren aurrean mandoak baimena eman bazuen ere, berak era-

baki zuen nola aldarrikatu behar ziren presoan eskubideak. Hase-ratik martxa kontrolpean eraman zuten; aurretik dantzari, txistulari eta pilotariak eta atzetik jendea, binaka eta elkarren artean beraien erabakitako distantzia utziz. Hala ere, mandoak kargatzeko mehatxua behin baino gehiagotan egin zenez eta koarteleatik pasatzen utzi ez zenez, ibilbidea nahi baino motxagoa egin behar izan zen. Beraz, Leitzan martxari atxikimendua azaldu zioten dantzariak, kultur taldeko kideak, txirindulariak, EHko zi-



Traba eta oztopo franko jarri zituen guardiazibilak Leitzan.

Gara

negotziek, jubilatutaldekoko kideak eta LABeko ordezkariak izan zuten testigua eramateko aukera, baina ez EAKo zinegotziek, suhiltzailak, Aurrera futbol taldekoko jokalariek zenbaitek, Asketa abesbatzako kideak, IKA, Haika, EHNE eta Musika Eskolak. Partaide guztiak plazara iritsi zirenean, dantzariak lekukoa eskutan zutela agurra dantzatu zuten, ekitaldiari bukaera emanaz. Ondo-

ren guardiazibilek alde egin zuten.

Kantaldiak Cultur 2000 ekitaldien barnean

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako partzuergo turistikoak (besteak beste) antolatu duten Cultur 2000 egitarauaren barnean, bi ekitaldi eginen dira Leitzan. Lehenengoa, Orbela taldearen emanaldia, uztailearen 22an, larunbata, gaueko ha-

mar terdietan, Leitzako zineman izanen da. Bigarrena berriz, Joxan Goikoetxea eta Txomin Artolaren kantaldia, uztailearen 29an, larunbata, ordu eta leku berean izanen da.

San Juan bezperako afari jendetsua

Plazan egin ohi den San Juan Bezperako afariko orain arteko marrikak hautsi ziren aurretik, bederatziehun bat lagun bildu baitzen bertan.

ARESO

Hainbat ekitaldi prestatu ditu Guraso Elkarteak

San Pedroetarako ekitaldiak prestatu dira

JUANA MARI SAIZAR

Ekaineko arratsaldetan Aresoko eskolako umeei Eguberrietako jaiotzaren irudi berriak margotzen aritu dira. Uztailearen lehenengo astean, berriz, xake txapelketa antolatu dute eta hamar umek hartu dute parte. Bi talde osatu dituzte, helduak eta gazteak, hain zuzen. Hau

dena Guraso Elkarteak antolatu du.

Udako langileak

Langabezia zuten bi langilek herriko kalleak txukunduko dituzte uda honetan.

Ikasturte bukaerako bidaia

DBHko 4. mailako ikasleek ikasturte bukaerako bidaia Palma

de Mallorcara egin dute.

Jubileo

2000. urtea dela eta, Jubileo delakoa ospatuz, Aresoko parrokiako jendeak, beste elizakoekin batera, irteera antolatu zuen Uxue, San Martin de Unx eta inguruetara. Bukatzeko Olivako monastegia bisitatu zuten.



San Pedro Eguna ospatu zen urtero bezala.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA


BAZTAN

Baztandarren Biltzarra aste hondar honetan ospatuko da

Herri bakoitzak bere zarea zozketatuko du aurten

TTIPI-TTAPA

Larunbat eta igande honetan, Baztandarren Biltzarra berri bat ospatuko da Elizondon. Larunbatean, Zizkuitz txaranga karririkaz karririka ibiliko da. 9etan dantzak izanen dira Ziga Plazan eta gauerdian dantzaldia Laiotz taldearekin. Dena den, egun nagusia uztailearen 16a, igandea, izanen da. 10etan laxoa partida jokatuko da pilotalekuan eta ordu berean irekiko da artisauen erakusketa. Eguerdian hasiko da orga apainduen desfilea. Gan den urtean bezala, hamabortz herrietako orgak ikustea espero dute antolatzaileek. Bi orduetan mutildantzak dantzatuko dira plazan eta ordu erdi berandua go bazkaria izanen da Merkatuzelaian. Bazkal ondoko jaialdian, kantariak, bertsolariak, Muxikoak eta Larraindantza izanen dira. Akitzeko, Eztanda musika taldea ariko da. Aurtengo Baztandarren Biltza-



Honelako irudirik eskainiko digu aurtengo Baztandarren Biltzarrak ere. Ondoan, aurtengo kartelaren irudia.

lehiaketan saritutako lanen berri eman du Balleko Udaleko Euskara Zerbitzuak. Ipuin lehiaketan, A mailan, Elizondoko Lurdes Elizegiren «*Pinguino baten abenturak*» ipuinak jaso du lehen saria. B mailan, Lesakako Xumar Altzagaraik eraman du lehen saria, «*Jendearen tzat...*» ipuinarekin. C mailan, Elizondoko Fernando Anbustegiren

«*Neronen bile*» idazlana izan da saritua. Komiki lehiaketan, A mailan bertzerik ez ziren lanak aurkeztu. Lehen saria, Elizondoko Estibaliz Sarratea eta Ana Mari Mendikoa-rentzat izan zen, «*Istripua errudun*» lanarengatik. Xabier Goñi elizondarrak akzesita jaso du, «*Xabier eta bere aseto langilea*» lanarengatik.

Ipuin eta komiki lehiaketa
Ipuin eta komiki

Personaiak

Iñaki Mihura korrikalari arraioztarra indartsu dabil

Iñaki Mihura gailendu zen uztailearen lehen asteburuan Eibarren egindako 3.000 metroko proban. Korrikalari gazteei zuzendutako proba honetan 8 minutu eta 55 segunduko denbora egin zuen, bigarrenak baino hameka segundu gutiago. Denboraldi honetan hameka proba irabazi ditu, bederatzi bakarka eta bi taldeka. Uztailearen 23an Espainiako txapelketan parte hartuko du Murtzian eta Mihurak 1.500 eta 5.000 metroetan parte hartzeko markak egin ditu. Dena den, bietako bat aukeratu beharko du. 800 metrotan ere aritzen da eta Anoetan, nagusiekin batera egindako proba batean, bosgarren izan zen, 16 partehartzaileen artean. Animo bada!



Iñaki MIHURA

Gierreserena
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - Faxes: 948 453375
Ordoki Auzoa • **ARIZKUN**

Baztanen... **24 orduko zerbitzua**
ESTHER FUNERARIA
Lorendena • Garden Center
Hilketak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

SOULE
Hileta artea
© 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiok karretera 3. Km
© 948 599 131 - **URDAZUBI**

Iruritako Garagardo Besta uztailaren 22rako prestatu dute herriko gazteek

Rosendo izanen da aurtengo jaialdian izarririk handiena

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 22an, arratsaldeko 7etatik aitzinera eginen da Iruritako Gazteek zazpigarren aldiz prestatutako Garagardo Besta. Bertze urteetan bezala, musika estilo ezberdinak adituz hogeigarrogarro klase ezberdin dastatzeko modua izanen da. Musikariei dagokienez, Rosendo izanen da aurtengo musikaririk famatuena. Rockeroa baino lehen Ajariguan eta Tutumba taldeak ariko dira. Hamlet heavy-metal musika taldea ere ariko da. AC/DC talde famatuaren bertsoak egiten dituen The Bon Scott Band taldea ere Iruritan izanen da. 2-Kate taldeak hip-hop-tecno-industrial musika egiten du (gogo, argi eta irudiakin lagundua) eta ikuskizuna akautzeko Zeta y Guateque All Stars DJak musika jarriko du. Guzira, hamabi orduko musika saioa osatuko dute, sarreraren prezioa 2.500 pezetakoa delarik.



Elizondoko Santiagoak, uztailaren 24tik 29ra

Egitarau zabala izanen dute aurten ere Elizondoko Santiago bestek (erdiko gehigarrian). Musika bandak bere tartea izanen du, noski. Foto Zaldua

Modu berean, apartatzeko eta akanpada egiteko dohaineko lekua bezperatik moldatuko dutela errana dute antolatzaileek.

Udal Hirigintza Plana onartu da EA eta UPNren aldeko botuekin

Baztango Udal Hirigintza Plana behin behineko onartu zuen Balleko Udalak azkeneko batzarrean, EA eta

UPNren aldeko botuekin eta EHren kontra-koarekin. Proiektu honi 1998ko abenduaren 28an eman zitzaion haserako onespina, ahobatez. Betiko arauak gaurkotu eta balioberritu nahi izan dira, azken aldiari onartu diren legeetara egokituz.

EHren ustez, planak arazo tekniko batzuk ditu eta planteamendu aldetik ez da egokia, «beraz, ezin diogu onespina eman».

Patxi Oiarzabal alkateak, aldiz, plana «teknikoen ikerketa sakon baten ondotik eta bilera aunitzen ondotik idatzi da».

Margo erakusketak

Elizondoko Bereko-etxea etorbideko 2. zenbakian Jose M^a Auzaren margo erakusketa zabalik dago uztailaren 16a arte. 17tik 31ra, Irene Molinaren lanak izanen dira ikusgai.

flash

Xoteroren trasladoaren aurka

Balleko Udalak bere arrenkura azaldu du Xotero Etxandi Arraiozko presoak Valdemoroko espetxera eraman dute-lako. EHk aurkeztutako mozioak EAren babesa izan zuten, UPN abstenitu zen bitartean. Modu berean, euskal presoek eskubideen aldeko martxan guardia-zibilaren portaera salatu zen. «Elizondoko eta Oronozen parte-hartzaileak iraindu, jo eta mehatxatu zituzten» dio mozioak. Gertakariak «harridura eta hase-rra» sortu dute.

Bertze istripu larria Zozaian

Daniel Perez Argibai, Oronozen bizi zen 26 urteko guardia-zibilak, bizia galdu zuen uztailaren 2an Zozaia inguruan izandako trafikoko istripu larrian.

H. Lopez
iturgintza

- Kalafakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrial
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

ORDOKI LIKOREAK

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA

Parrilan egindako
haragi eta
arrainak



BAZTAN
FUNERARIA

ORAIN TANATORIO ZERBITZUA

EHORZKETA ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

SARA

Bi urteko lanen ondotik saihsbidea ideki dute

Sarako Izarrak bere biltzar nagusia egin zuen

ANA MARI ETA FRED

Bi urteko lanen ondotik, saihsbidea ideki berri dute. Oraindantik, Sara zeharkatzen ahal da, plazatik pasatu gabe. Bixtan dena, horrek balioko du plazako trafikoaren arintzeko, bereziki udan. Bertalde, hemendik goiti autobusek eta kamiunek herria aise errexago zeharkatzen ahalko dute. Norbait kalte egitekotan, bide berri horrek plazako komertsanteak ditu gehien hunkituko, beldur baitira jende guttiago pasatuko dela eta ondorioz lan guttiago egingen dutela.

Larrungo treina gauzez ere

Dudarik gabe, uda guziz bezala, Larrungo treinak gaitzeko arrakasta bilduko du aurten ere, eta kanpotiarrak San Iñazioko lepoz jabetuko dira. Ez baitzuten nonbait horrekin aski, Trein konpaniako nagesiek esperientzia berri baten aldeko apustua egin dute. Hemendik goiti, ortzegun arratse-

tan Larrungo paisai mi-resgarriak preziatzen ahalko dira gauaz, baina ez edozein prezio-tan, 240 libera (6.000 pezeta nonbait han) galdetuak izanen baitzaizkizue bidaia egitea deliberratzen baduzue.

Protohistoriako hilarrien erakusketa

Uztailaren 13an, ortzegunarekin, estreinatuko da Sarako lezeen sartzean egin protohistoria garaiko hilarrien lehen erakusketa. Erran digutenez, Jacques Blot adituak du lana kudeatu, eta lehen aldia da horrelako zerbait egiten dela Euskal Herrian.

Sarako Izarra errugbi taldearen Biltzar Nagusia

Ekainaren 30ean, Sarako Izarra errugbi elkarteak urtero bezala sasoina finitzen duenean bere biltzar nagusia egin zuen. Bilkuran hogeita hamar lagun bildu ziren eta hiru gai aipatu ziren: konduak, bulegoa eta sasoina. Bulegoari dagokionez, Gratien Barrenetxe lehendaka-

ri ordeak (sponsor bilketaren arduraduna) utzi du eta bere ordezkorik izendatu gabe gelditu da oraingoz.

Sasoinari buruz orokorrean denboraldi ona egin du taldeak, nahiz eta entrenatzaileak, Mixel Brisson saratarra eta Christian Cayrey (Bidarte), penatuak egon ez direlakoztu lortu tentsatutako emaitzak. Ondoko sasoinari begira, bortz jokalarik uzten dute eta bi berriak hasi, beraz hiru guttiago! Honen ondorioz arazoak izanen dira bi talde osatzeko eta deia egiten da jokalari berriak hasteko. Bilkuraren ondotik, nola ez, aperitifa eta afariarekin goxoki pasatu zen arratsa.

Saratik Elizondora

Ikasle Abertzaleak (IA) antolatuta, eskola ibiltaria izan nahi lukeen mendi martxa egingen da uztailaren 20tik 23rat. Gure herritik abiatuko den ibilaldi honetan Euskal Herriaren eza-gutza zabaldu nahi dute eta, beraz, ikasle sentitzen den edozoini es-



Olhain ikastolako ikasleak Orion

Olhain ikastolako ikasleek egonaldia egin dute Gipuzkoako Orrio herrian. Inguruak ezagutzeko parada ere ukan dute, hala nola: Zarautz, Getaria, Donostia eta bere itsas-erakustokia. Azkenik memento goxo bat iragan dute «Txiki Park» haur jostalekuan. Oroitzapen onak gordeko dituztelakoan gaude.

kaintzen zaio martxan parte hartzeko gonbidapena. Egitaraua uztailaren 20an hasiko da plazan, deportatuei omenaldi bat eginez (1793. urtean frantses iraultzaileek 4.000 lapurtar Landetara deportatu zituzten, horietatik 1.600 hil ziren). Gero Axuria mendia upatu ondotik, Zugarramurdi izanen dute helmuga. Biharamonean, Amaiurko bidea hartu behar dute eta hirugarren egunean Alkurruntz mendia upatu eta Elizondon dute azken etapa. Hiru egun haue-tan, lurraldetasuna galdetuko dute ibilbidean, mintzaldi frango anto-

latu dira, hala nola soriginei eta mugalariei buruzkoak.

Udako besta eta hitzordu initz

Uztailaren 15ean Zazpiak Bat dantza taldearen besta. 16an goizetik azoka. 20an, gaueko 9,30etan, Saiberri taldearen kontzertua elizan. 21ean, gaueko 9,30etan indar jokoak. 7etan presoen aldeko elkarretaratzea. 29an Pottokaren Eguna.



Kutxa Kutxa Kutxa
txa Kutxa Kutxa Kutx

Kidetzatzerri bat!
 7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
 Tel. 0559203274 Fax 0559203237

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
 Ibardingo Lepoa
 ☎ 948 631209

SAIOA
ILEAPAINDEGI
MISTOA
IBARDINen

Benta Biok-en,
 Benta Mirentxuren
 ondoan

☎ 0034948630424

SENPERE

Herriko bestak arras ongi iragan dira

Mementu goxoa elkarrekin pasatzeko parada izan dute herritarrek

FRANCK DOLOSOR

Herriko bestak arras ongi iragan dira uztaile hastapenean. Mementu goxoa elkarrekin pasatzeko parada izan dute herritarrek. Orain amoztarren aldi izanen da uztailearen 14tik goiti.

Udako agenda

- Euskal dantza ikusgarriak asteartero Zikirolatz taldearekin, arratseko 9,30etan.
- Pilota partidak asteazken guziz, 5etan.
- Oldarra koroaren zertertua elizan uztailearen 19an, asteazkenez, arratseko 9,30etan.

Bertze emanaldia agorriaren 16an izanen da.
- Artzain txakur txapelketa uztailearen 23an, igandearrekin, 4,30etan.



Zaldubi ikastolako haurrak Arabako Zuaza herriko denborapasa tokian egon ziren erearoaren 14tik 16a arte. Arabako Aldundiko opor leku ederrean aktibitate frango egin ahal izan zuten gazteek, den-dena eskuaraz. Bertzalde, Martikoenea zubia uztailearen 1ean inauguratu zuten eskualdeko hainbat agintariek. Azkenik, Besta Berri erearoaren 25ean ospatu zen. Beti bezala, karrika ibilaldi polita izan zen.

Argazkia: Studio de la Nivelles

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Eskolako ikasleak sarituak izan dira Nafarroako Literatur Lehiaketan

Uztailearen hondar asteburuan sekulako jaialdiak izanen dira

MARGARI ETA KORO

Urdazubi-Zugarra-murdiko eskolan berri on batekin eman diote akabaila aurtengo ikasturteari: Nafarroako Gobernuak antolatutako Pedro Diez de Ultzurrun Deklamazio lehiaketako lehenbiziko bi sariak irabazi zituzten Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleek eta DBHko lehen zikloko

ek eta, gainera, Literatur Lehiaketako bigarren saria DBHko lehen mailako Xabier Ariztia ikasleak «Egiaren zalduna» izeneko idazlanarekin.

Zintzarria jaialdia uztaile hondarrean Zugarramurdi

Uztailearen hondarreko asteburuan (29 eta 30ean) sekulako jaialdiak antolatu dizkigute herrian Xareta eta Eus-

kaldunon Egunkariaren artean. Bi egun hoieta-ko gauetan (arratsaldeko 8etatik goizeko 2etara) kantaldiak antolatu dira. Larunbatekoan talde hauek arituko dira: Faltriqueira, Etzakit, Hijas del Sol, Oskorri, Luar na lubre, Xuia Reggae Band eta Jabier Muguruza. Igandekoan berriz, Eric Rigler & Bad haggis, Alaitz eta Maider, Lucrecia, John

Whelan, Maddi Oihe-nart eta Pier Paul Berzaitz. Kantaldi hauetarako sarrerak Iruñea, Baiona, Irun, Donostia, Bilbo eta Gasteizen salduko dira, herrian ez. Igandean herriko karriketari Erdi Aroko merkaturia ikusteko aukera izanen da, esku-lanetako 40 postu jarriko dira eta Maimur taldeak garai haietako giroa eskainiko du.

Akelarre elkarteak ttipi-ttapa Zugarramurdi banatzearen gastua hartu du bere gain

Zugarra-murdiko Akelarre elkarteak TTIPI-TTAPA aldizkaria hamabostero etxez etxe banatzearen gastua bere gain hartu du. Jakina denez, Udalak 10.000 pezeta ordaintzen ditu eta gainerakoa ordaintzeko etxez etxe eskan hasia zen TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA. Akelarre elkarteak 139.410 pezeta eman dio TTIPI-TTAPAri eta aldizkaria debalde banatuko da orain ere.

EZKONTZAK

Pedro Maria Azkona Nagore eta **Eva Maria Urkiola Etxegia**, Iruña eta Leitzakoa, ekainaren 3an.

Xabier Martinikorena Garro eta **Maria del Coro Ariztimuño Baleztena**, Mugiro eta Leitzakoa, ekainaren 3an.

Jesus M^o Etxeberri Goñi eta **Ainhoa Zubialde Grajirena**, Beintza-Labaien eta Irungoa, ekainaren 24an.

Bernar Irigoien Irtzoki eta **Miren Jaione Artieda Iantzi**, Etxalar eta Berakoa, uztailaren 1ean.

Béatrice Lekuona eta **Jean Louis Segur**, Sara eta Azkaingoa, ekainaren 24an.

JAIOTZAK

Jaime Quevedo Ziaurritz, Elizondokoa, ekainaren 23an.

Paula Urrutia Goienetxe, Elizondokoa, ekainaren 21ean.

Ania Gallego Indaburu, Berakoa, ekainaren 23an.

Aleix Pedrosa Medina, Berakoa, ekainaren 28an.

Ramon Alustiza Ormaetxea, Doneztebekoa, uztailaren 3an, 84 urte.

Javier Otxandorena Irigoien, Beintza-Labaiengoa, ekainaren 28an.

Eloi Huchet, Sarakoa, ekainaren 16an.

Ilona Elorga, Sarakoa, ekainaren 21ean.

HERIOTZAK

Magdalena Aizpuru Perurena, Goi-zuetakoa, ekainaren 25ean, 82 urte.

Maria Jesus Madariaga Matxikote, Arantzakoa, ekainaren 24an, 62 urte.

Maria Josefa Txantre Irtzoki, Berakoa, ekainaren 23an, 59 urte.

Bartolome Igoa Bergara, Lesakakoa, maiatzaren 16an, 68 urte.

Manuela Aiestaran Irtzoki, Lesakakoa, ekainaren 2an, 70 urte.

Maria Dolores Migeltorena Andia-rena, ekainaren 21ean, 65 urte.

Maria Angela Igoa Irigoien, Lesakakoa, ekainaren 29an, 88 urte.

Ramona Baleztena Gurbindo, Leitzakoa, ekainaren 20an, 89 urte.

Xan Jorajuria, Sarakoa, ekainaren 29an, 78 urte.

Antoinette Iribarren, Sarakoa, ekainaren 29an, 88 urte.



**Trino
CORDOBA
SUKILBIDE**

*Zu joan zera
bainan zure oroimena
gurekiin geldituko da*

ZURE LAGUNAK 2000-06-16



**Juanjo
TXOPERENA
MATXIKOTE**

2. urteurrena

*Benetazko adiskidetasunak
betirako arrastoa uzten du gugan*

HIRE LAGUNAK Igantzi, 2000ko uztaila



**Pedrito
IRIGOYEN IRAOLA**

1. urteurrena (Bera, 99.07.06)

*Seguru urte aunitz pasatuko direla
eta hau lehena bertzerik ez dela izanen,
baina urteak kontatzen ahal izateak berak
zurekin ahazten ez garela adierazten du.*

Pepita, Josema eta Patxi



Benita ARAMENDI AGIRRE

*Bizi pozaren adixkide ta
fedearen lagunurko
zure hutsuna nabaria da
ezin dugu egin uko
Benita argi eduki zazu,
gure samina lekuko
semealabek etzaitugula
sekula ere ahaztuko*

Zure seme-alabak

Bera, 2000-06-21



Benita ARAMENDI AGIRRE

*Amatxi zuretzako
da gure kantua
patua batzutan da
madarikatua
zu eramen izana
bere pekatua
hala ere ataxin
ondoan hartua
zeruak elkartu du
lurrak banatua*

Zure bilobak

Bera, 2000-06-21

Lesakako Gran Hermano taldeak irabazi du Bortzirietako futbito txapelketa

- Finalean 3-1 irabazi zion Arantzako Max Motosierra taldeari
- Hamaika talde aritu dira aurtengo edizioan, iaz baino sei guttiago

Lesakako Gran Hermano taldea gailendu da Beti Gazte elkarteak antolatutako Bortzirietako futbito txapelketan, finalean Arantzako Max Motosierrari-iazko txapeldunak irabazi ondotik. Aranztarrek ezin izan zuten azken bi urteetako joku bikaina erakutsi, aitzinean talde sendoa topatu baitzuten. Lesakarrak ongi defendatzeaz gain, aitzinera ere arrisku handiarekin joan ziren. Honela, atsedendirako 2-0 aitzinetik ziren Gran Hermano-koak. Bigarren zatian aranztarrek gola sartu zuten eta hor estutu ziren kontuak. Dena den, Gran Hermanok hirugarren gola sartu eta txapela eraman zuen.

Fernando Susperregi, Xixo Aiestaran, Igor Romano, Borja Senosiain, Iñigo Rodriguez, Mikel Almandoz, Joseba Etxarte, Aitor Mitxelena, German Terremos eta Joseba San Sebastianek osatu dute talde txapelduna.

Hirugarren posturako norgehiagoka bo-



Gran Hermano taldeak final serioa jokatu zuen eta merezimendu osoz irabazi zuen aurtengo txapelketa.

Argakiak: Aitor

rrokatuan UPN Kartzelerok 8 eta 7 irabazi zion Zama taldeari.

Guzira 11 talde aritu dira aurtengo edizioan, iaz baino sei guttiago. Zortzi Lesakakoak ziren, Berako bi eta Arantzako bat. UPN Kartzeleroko Unai Etxeparek jaso zuen goleatzaile onenaren saria (15 gol) eta Max Motosierrako Dabid Iturriak jokalaria onenarena.



Max Motosierra, aurtengoan azpitxapeldun.



UPN Kartzelerok taldean Xotero Etxandi eta Iñaki Fagoaga presoek emana zuten izena.



Zama taldea, laugarren izan da aurtengo txapelketan.

BOTE *fronton*

◆ Doneztebeko VI. Paleta-goma txapelketa

Txoperena-Txoperenak irabazi dute Erreka elkarteak sei-garren urtez antolatutako Doneztebeko paleta goma txapelketa, finalean Susperregi eta Dagerreri 30 eta 25 irabazi ondotik. Hirugarren eta laugarren posturako norgehiagokan Apezetxea eta Ganboa aisa gailendu ziren, 9 tantutan utzi baitzituzten Lopezen ordeztaritu zen Olaberri eta Inza.

◆ Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa

Baztan eta Lizarraldeak jokatu dute lauribat honetan Iruñeko Labrit pilotalekuan Nafarroako Herriarteko pilota txapelketaren finala. Baztandarrek finalerdietan Bera kanporatu zuten. Hurrengo alean emanen dugu finalaren berri zabalagoa.

◆ Laxoa txapelketa

azken txanpan sartua da. Final laurdeneko norgehiagokak jokatzen ari dira asteburu hauetan. Finalerdia uztailearen 23, 25 eta, hirugarren partida behar balitz, 30ean jokatuko liriteke. Final handia, azkenik, abuztuaren 2an.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

ITUREN

► Uztailaren 14tik 18ra

ELGORRIAGA

► Uztailaren 22tik 26ra

ARANO

► Uztailaren 22tik 26ra

ALKAIAGA

► Uztailaren 24 eta 25ean

Bertsolariak, dantzariak, pilotariak, musika...

JAIALDIAK

BERA

► Uztailaren 20an

Nazioarteko Dantza Jaialdia Berako Eztegarra frontoian. Arratsaldeko 8,30etan.

ERAKUSKETAK

BERA

► Uztailaren 21etik 23ra

